



IT Txartela, Informazioaren Teknologien Erabileraren Egiaztagiria

IT Txartela, Informazioaren Teknologietan oinarritzko Gaitasuna Ziurtatzeko Sistema bat da, eta pertsona batek tresna informatikoak eta Internet erabiltzeko dauzkan ezaguerak egiaztatzen ditu. Informazioaren Gizartean moldatzeko daukaten gaitasuna egiaztatu nahi duten hiritar guztiei zuzenduta dago. Beste hitzetan esanda, informatika munduko EGA titulua litzateke IT Txartela.

Aurki enpresetan eta erakundeetan, bertan lan egiten duten pertsonak eta gerora sar daitezkeen beste batzuek Informazio Teknologietan duten gaitasuna objektiboki ebaluatzeko tresna bihurtuko da. Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko edota Gaztela-Leongo zenbait oposaketetan egiaztagiri hau eskatzen hasiak dira.

Jaso Ikastola IT Txartela lortzeko egiaztatutako zentroa da. Hau da, hilerogure ikastolan egiaztagiri ezberdinak lortzeko azterketak egin daitezke.

PROBAN IZEN EMATEA

Erabiltzaileak, egiten duen **proba** bakoitzeko, izena eman beharko du. Pentsa dezagun pertsona batek Egiaztagiri bat lortu nahi duela Internet moduluan. Gero azalduko den prozeduraren arabera izena eman eta proba egingo du. Gaitutako ez balu eta Egiaztagiria berriz egin nahiko balu, **berriz izena eman beharko du.**

Posible da bi frogak egitea egun batean. Beharrezkoa da egiaztagiri desberdinak direla eta proba izena ematea bat egitea froga bakoitzeko.

Egiaztatutako Zentroetan edo Internet bidez izena ematen da, alegia, <http://www1.euskadi.net>. Eskatzen zaizkion datu pertsonalak emango ditu erabiltzaileak, eta Proba egiteko nahi duen zentroa aukeratuko du (gure kasuan, Jaso Ikastola). Zentroa aukeratuta, eguna eta ordua aurrez ezarrita daude, eta ez dago aldatzeko aukerarik. Hori bai, matrikula deuseztatu daiteke, zuzenean web orrialdetik.

Behin-betiko alta egin ondoren, erabiltzaileak alta horren konfirmazioa jasoko du bere gako-hitza eta erabiltzaile izenarekin. Gako hitza eta erabiltzaile izena gorde egin beharko ditu, izan ere, proba egiteko baldintzetako bat da. Datu hauez gain,

erabiltzaileak email bidez jasoko du aukeratu duen Egiaztagiriari buruzko informazioa, proba zein zentrotan egingo duen, eguna eta ordua.

Pertsonaren batek proba egin nahiko ez balu edo aldaketaren bat egin nahi izatekotan, izena eman zuen Zentroan jakinarazi beharko du. Aukeratu duen zentroan emango da baja edo egingo da aldaketa. Bi kasuetan, egoera berriaren konfirmazioa jasoko du.

Pertsona bat, edozein gorabeheragatik, proba egiteko unean agertuko ez balitz, automatikoki baja emango litzaioke eta deialdia agortuko du, beraz, Egiaztagiria lortzeko berriz alta egin beharko du, aipatu den prozedura betez.

MODULUAK

Egiaztagiria lortzeko, "Euskadi Informazioaren Gizartean" Planak 30 modulu jarri ditu erabiltzaileen esku. Egiaztagiriak ez du iraungitasun datarik.

Hauexek dira moduluak:

✚ Internet	✚ MicrosoftExcelXP básico	✚ OpenOffice.org Calc
✚ Internet Básico	✚ Microsoft Excel XP	✚ OpenOffice.org Impress
✚ Internet Avanzado	✚ avanzado	✚ OpenOffice.org Draw
✚ Windows 95	✚ Microsoft Access 97	✚ OpenOffice.org Math
✚ Windows 98	✚ básico	✚ OpenOffice.org html
✚ Windows XP	✚ Microsoft Access 97	✚ Editor
✚ Microsoft Word 97	✚ avanzado	✚ Microsoft project XP
✚ básico	✚ Microsoft Access 2000	✚ Microsoft frontpage
✚ Microsoft Word 97	✚ Microsoft Access XP	✚ Programación en Java
✚ avanzado	✚ básico	✚ Microsoft Word 2003
✚ Microsoft Word 2000	✚ Microsoft Access XP	✚ básico
✚ avan.	✚ avanz.	✚ Microsoft Word 2003
✚ Microsoft Word XP	✚ Básico ofimática 97	✚ avanzado
✚ básico	✚ Básico ofimática XP	✚ Microsoft Excel 2003
✚ Microsoft Word XP	✚ Microsoft Outlook 2003	✚ básico
✚ avanzado	✚ Microsoft Outlook XP	✚ Microsoft Excel 2003
✚ Microsoft PowerPoint 97	✚ Microsoft Office XP	✚ avanzado
✚ Microsoft PowerPoint	✚ Tratamiento de textos -	✚ Microsoft Access 2003
✚ 2000	✚ Presentaciones (Office	✚ básico
✚ Microsoft PowerPoint	✚ documentación)	✚ Microsoft Access 2003
✚ XP	✚ Hoja de cálculo - Base de	✚ avanzado
✚ Microsoft Excel 97	✚ datos (Office gestión)	✚ Microsoft PowerPoint
✚ básico	✚ Sistema Operativo Linux-	✚ 2003
✚ Microsoft Excel 97	✚ Mandrake 8.2	✚ Accesibilidad Web
✚ avanzado	✚ OpenOffice.org 1.0.1	✚ Mandrake 8.2
✚ Microsoft Excel 2000	✚ OpenOffice.org Writer	

PROBA EGITEA

Erabiltzailea zentrorra joango da bere nortasuna egiaztatzeko dokumentu batekin, zentroko zerrendan ageri direnak proba egingo dutenak direla egiaztatuko baita. Era berean, komenigarria da zentroak egindako altaren egiaztagiria eramatea beharrezko diren datuekin (proba egiteko lekua, eguna, ordua, modulua eta abar).

Zentroak utziko dio ordenagailua erabiltzaileari. Behin ordenagailuaren aurrean dagoenean, idazmahaiko zuzeneko sarbide ikonora sartzen bada, erregistro pantaila irekiko zaio eta erabiltzailearen izena eta gako-hitza sartuko ditu.

Proba egin bitartean, aplikazioaren erabilerari buruzko galderak soilik egingo zaizkio zentroko arduradunari, eta ez galderen edukiei dagozkienak. Edukiei buruzko galderei ez erantzuteko aginduko zaio arduradunari.

Probara joan baino lehen, komeni da ESI-ren web orrialdeko [Egiaztagirien demo-ra](#) sartzea, proban erabiliko den aplikazioarekin ohitu eta trebatzeko. Demoaren helburua azterketa egiten de aplikazioarekin trebatzea da, horregatik gai batzuen demoak besterik ez dira agertzen.

Proba bat gainditzeko ehunekoak ez dira berdinak modulu guztietan. Modulu bakoitzeko 6 **deialdi** daude. Denak agortzen badira eta ez bada gainditzen, 2 hilabete itxaron beharko dira berriz modulu horretara aurkezteko.

Ziurtagiriak, proba egin eta 3 aste beranduago bidaliko dira, erreklamazio epea kontutan eukitzen baita.

Orokorrean, proba gainditzeko galderen %75a ongi erantzuntea beharrezkoa da.

GALDERAK ETA ZALANTZAK

IT Txartelari buruzko edozein zalantza argitzeko helbide honetara idatzi: xarrizibita_jaso@yahoo.es